

## 2/13 IRIZPENA

### Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an.

#### I. SARRERA

Maiatzaren 8an Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko idazki bat jaso genuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, Sailak *“Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zigun Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Aurkeztu zaigun legegintza-ekimenaren helburua Prestakuntzaren kalitatea egiaztatzeko tresna bi sortzea da: alde batetik Prestakuntza zentro eta erakundeen erregistroa eta, bestetik, haren osagarria den Prestakuntza Espezialitateen Fitxategia. Biak ere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegurako prestakuntza arloko Zuzendaritza eskudunari daude atxikita, eta zentroen, hau da, horien instalazioen, ekipamenduen eta giza baliabideen kalitatea bermatzea bilatzen dute, eta baita prestakuntza Administrazioak alde zuzenetik araupetutako eta onetsitako edukiak oinarri hartuta egitea ere.

Agiriaren kopia bat igorri zitzaion berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei euren proposamenak eta iritzia adieraz zitzaten eta ondoren horiek Lan-batzorde egokiari helarazi ahal izateko, hala agintzen baitu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendurako Araudiak. 2013ko maiatzaren 22an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri hartuta, honako Irizpen-proiektua egin zen Batzordeak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Gehiengoz onetsi zuten Euskadiko CCOOren ordezkariaren boto partikularrekin.

#### II.- EDUKIA

*“Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretu-proiektuari”* buruzko testuak Hitzaurrea, 10 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen ditu. Horien laburpena egingo dugu jarraian.

##### Hitzaurrea

Enplegurako Ziurtagiriei eta Lanbide Heziketari buruzko estatuko araudia<sup>1</sup> bete eta garatuz, eta (lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia

<sup>1</sup> - 5/2002 Lege organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.

- 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituenak.

Erkidegoari eskualdatzeari buruz Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28an hartutako Erabakia onesten duen azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuari jarraiki, honako arau honen helburua Prestakuntzaren kalitatea egiaztatzen duten funtsezko tresna bi, hau da, Prestakuntza zentro eta erakundeen erregistroa eta haren osagarria den Prestakuntza Espezialitateen Fitxategia osatzea da.

Biak ere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren enplegurako prestakuntza arloko Zuzendaritza eskudunari daude atxikita, eta zentro guztiek Euskadin izan beharreko kalitate-bermeak ziurtatzea, hau da, horien instalazioen, ekipamenduen eta giza baliabideen kalitatea bermatzea bilatzen dute, eta baita prestakuntza Administrazioak aldez aurretik araupetutako eta onetsitako edukiak oinarri hartuta egitea ere.

Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan garatu beharreko prestakuntza-ekintzen eta prestakuntza-planen oinarri izango diren prestakuntza-espezialitateak identifikatzea eta definitzea da.

Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari dagokionean, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegurako prestakuntza ematen duten prestakuntza zentro edo erakunde publiko zein pribatuak sortzeko, baimentzeko, kentzeko, desagerrarazteko eta aldatzeko administrazio-egintzak inskribatuko diren erregistroa izango da.

### Xedapenak

1. art. Xedea eta aplikazio-eremua.
2. art. Definizioak.
3. art. Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiaren xedea.
4. art. Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiaren adskripzioa.
5. art. Espezialitateen tipologia.
6. art. Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiaren edukia.
7. art. Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroa: xedea, izaera juridikoa eta adskripzioa.
8. art. Egitekoak, antolamendua eta funtzionamendua.
9. art. Erregistroaren edukia eta egiaztapena edo/eta inskripzioa egiteko prozedura.
10. art. Kontrola eta kalitate-ikuskaritza.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretu-proiektua aurkeztu zaigu azter dezagun. Dekretu-proiektu hori Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikulua betez egin da, eta artikulua horrek honakoa xedatzen du: *“lanbide-heziketako tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko aukera ematen duen lanbide-heziketako*

- 
- 395/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistema arautzen duena.
  - TAS/718/2008 Agindua, martxoaren 7koa. Horren bidez 395/2007 ED garatzen da prestakuntzaren eskaintzari dagokionean eta hura finantzatzeko diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak xedatzen dira.

*eskaintza duten ikastetxeek bete beharreko oinarritzko betekizunak xedatuko ditu Gobernuak. Administrazioek ikastetxe horiek bete beharreko baldintza espezifikoak ezarri ahalko dituzte, beti ere euren eskumenen barruan. Halaber, Administrazioen lana izango da, euren eskumenen eremuan baita ere, aurreko atalak aipatzen dituen ikastetxeak sortzea, baimentzea, homologatzea eta kudeatzea”.*

Proiektuaren hitzaurreak adierazten duen legez, bai prestakuntza-espezialitateen fitxategia, bai prestakuntza-zentroen erregistroa elkarren osagarriak diren ezinbesteko tresnak dira Enplegurako Prestakuntzaren kalitatea bermatzeko eta, gure ustez, baita horien kudeaketa gardentasunez egiten dela bermatzeko ere. Horrenbestez, modu positiboan baloratzen dugu arau honen ekimena.

Hala ere, dagoeneko bi urte igaro direnez politika aktiboen eskumenak EAERI eskuordetu zitzaizkionetik, uste dugu gehiegi atzeratu dela tresna horiek arautzeko prozedura, eta beraz, litekeena da atzerapen horrek kudeaketa-arazoak ekarri izana.

Horrenbestez, harrigarria da Xedapen Iragankorrak 1 eta 2 ataletan jasotako prestakuntza zentro eta erakundeen inguruan xedatzen duena. 1. atalean honakoa da harridura sortzen duen xedapena: *“bi urteko epea izango dute, honako arau hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatuta, euren instalazioak dekretu honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetara egokitzeko”*. 2. atalaren kasuan, honakoa: *“Zentroen Euskadiko Erregistroan izen-eman beharko dira edo, behintzat, bertako ziurtagiria jaso beharko dute (...) bi urteko epean, hura indarrean sartzen denetik aurrera zenbatuta”*.

Egia da arau horren inguruan asko dagoela oraindik garatzeko, bai espezialitateen fitxategiaren kasuan, bai zentroen erregistroari dagokionean. Garapen horiek Lanbideren Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoak dira, eta ezinbestekoak dira dekretu horretan ezarritakoak behar bezala funtziona dezan.

Gainera, deigarria suertatzen da, baita ere, Xedapen Iragankor hori instalazioak baldintza berrietara egokitzeaz baino ez jardutea, izan ere, hitzaurreko azkenaurreko paragrafoak aipatzen duenez, Euskadiko zentro guztiek bete beharreko kalitate-bermeak instalazioei, ekipamenduei eta giza baliabideei aplikatu behar zaizkie.

Laburbilduz, uste dugu Lanbide ezin duela araua garatzeko xedez eskuordetu zaizkion ebazpenak emateko zeregina gehiago luzatu. Horrenbestez, egokia litzateke ebazpen horiek emateko gehieneko epe batzuk markatzea 5.3 artikuluan (espezialitateen tipologiari buruzkoa), 6.1 m) artikuluan (Fitxategiaren edukiak, Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko xedea duten prestakuntza-espezialitateei dagokienean), 8.2 artikuluan (Erregistroaren egitekoak, antolamendua eta funtzionamendua) eta 9. artikuluko 1 eta 4 ataletan (Erregistroaren edukia eta egiaztatzeke zein inskripzioa egiteko prozedura).

## IV.- GOGOETA ESPEZIFIKOAK

### 5.2. artikulua.- Espezialitateen tipologia

*“2. Espezialitateak honako mailetan sailkatuko dira:*

*a) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Espezialitateen Fitxategian jasotako prestakuntza-espezialitateak, bai profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko xedea dutenak, baita Estatuko Enplegu Sistema Publiko horrek azpi-sistema osorako onartutako bestelako espezialitateak.*

*b) Langile landunei zein langabeei zuzendutako Prestakuntza Planen babesean programatutako prestakuntza-espezialitateak.*

*c) Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-espezialitateak.*

*d) Zeharkakoak edo osagarriak diren prestakuntza-espezialitateak.*

*e) Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguarengan garrantzia duten edo enplegu-hobi zein jarduera ekonomiko berriei buruzko bestelako prestakuntza-espezialitateak (langile landun zein langabeei zuzendutakoak)”.*

Dekretu-proiektuaren 2. artikuluan jasotako “*prestakuntza-espezialitate*” kontzeptuaren definizioa bera kontuan hartuta, uste dugu irizpide ezberdinak nahasten direla sailkapena egiteko orduan, eta beraz, egokiagoa litzatekeela artikulua honen enuntziatuan “*prestakuntza-eskaintzaren mailak*” aipatzea.

Izan ere, 2. puntu honen a, b, c, d eta e atalek zerikusi handiagoa dute prestakuntzaren eskaintzaren mailaekin (hau da, programazio-aukera ezberdinekin) espezialitateekin eurekin baino. Azken horiek edukiei, gaitasun profesionalei eta zehaztapen teknikoei buruzkoak dira (ikus 2. art.).

Horrenbestez, bigarren puntu honen goiburukoa aldatu eta honako hau jartzea proposatzen dugu:

**“2. Prestakuntza-espezialitateen eskaintza honako mailetan banatuko da...”**

## 10.2. artikulua.- Kontrola eta kalitate-ikuskaritza

*“2. Kontrolen eta ikuskaritzen emaitzak Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroaren datu-egituran sartu ahal izango dira enplegurako lanbide-heziketa zentro eta erakundeen euskal Sarea hobetzeko planak garatzeko oinarri gisa erabili ahal izateko”.*

“Enplegurako lanbide-heziketa zentro eta erakundeen euskal sarea” terminoa definitu gabe dagoenez, uste dugu arau honetako 2. “Definizioak” atalean jaso beharko litzatekeela.

## Lehenengo Xedapen Gehigarria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimenduta Kualifikazioen Katalogo Nazionalean jasotako kualifikazioei loturiko Lanbide-heziketa tituluak emateko baimena eta hitzarmena duten lanbide-heziketako zentro pribatuek betetzen dituzte eduki horiek irakasteko beharrezko baldintzak, beraz, uste dugu ez dutela zertan dekretu honetan ezarritako prozedura guztia igaro.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak dagoeneko baimendu eta hitzartu ditu ikastegiok, eta gainera, egoera berean dauden zentro publikoei ez zaie prozedura hori aplikatzen.

Horrenbestez, xedapenaren edukia honako modu honetan aldatzea proposatzen dugu:

*“1. Profesionaltasun-ziurtagiriren bat lortzea ahalbidetzen duen Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionaleko kualifikazio profesionalei loturiko lanbide-heziketa tituluak emateko baimena duten Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mendeko lanbide-heziketako ikastegi publikoetan eta **hitzartutako ikastegi pribatuetan** profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko espezialitateak irakasteko egiaztagirari ez zaio arau honetan xedatutako prozedura aplikatuko..*

*Lanbide-heziketako ikastegi publiko **eta hitzartutako ikastegi pribatu** horien ziurtapena Hezkuntza arloan eskuduna den Sailak hala eskatuta egingo da, beti ere ikastegiak Agindu honetan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuta.*

*2. Profesionaltasun-ziurtagiriren bat lortzea ahalbidetzen duen Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionaleko kualifikazio profesionalei loturiko lanbide-heziketa tituluak emateko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren baimenik **ez duten** lanbide-heziketako ikastegi pribatuetan profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko espezialitateak irakasteko ziurtagiria lortzeko, arau honetan ezarritako prozedura jarraitu beharko da eta honako Dekretu hau garatzeko ebazpenek xedatzen dituzten zehaztapenak errespetatu beharko dira”.*


## V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egoki deritzo *“Prestakuntza Espezialitateen Euskadiko Fitxategiari eta Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Euskadiko Erregistroari buruzko Dekretu-proiektua”* kontsulta-organo honek egindako gogoetei jarraiki izapidetzeari.

Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an.



OE Presidentea  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos

## ERANSKINA

### EUSKADIKO CCOOren ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

CESeko osoko bilkurak bilera egin du 2013ko maiatzaren 29an, eta bertan PRESTAKUNTZA ESPEZIALITATEEN EUSKAL FITXATEGIARI ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO ZENTROEN ETA ENTITATEEN EUSKAL ERREGISTROARI BURUZKO DEKRETU PROIEKTUARI dagokionez egindako irizpena onetsi da, Euskadiko CCOOek eta UGTk aurkako botoa eman dutela. Bilera horren ondoren, erakunde honek honako hau adierazi nahi du:

#### BOTO PARTIKULARRA

Egindako irizpenaren aurka gaudela adierazi nahi dugu, bai aldaketaren justifikazioari dagokionez bai Dekretu Proiektuaren lehenengo xedapen osagarriaren proposatutako aldaketaren edukiari dagokionez, eta Jaurlaritzatik jasotako proiektuan agertzen zen jatorrizko testuari eusteko eskatu nahi dugu, honako arrazoi hauek direla eta:

1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Lanbide Heziketako zentro publiko zein pribatu bat lanbide heziketako prestakuntza zikloak emateko baimendu eta ituntzeak ez dakar Legeak enplegurako beste prestakuntza mota bat emateko ezartzen dituen betekizunak betetzea.
2. Nabarmena da Hezkuntza Sailak legeak lanbide heziketako zentro publikoetan zein pribatuetan baimendutako prestakuntza planak emateko ezarri dituen betekizunak betetzen direla bermatu ahalko duela, zentro horiek jada ikuskatu baitira zikloak emateko behar diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko asmoz. Hala eta guztiz ere, ezin dugu gauza bera esan profesionaltasun ziurtagiriei dagokienez, legeak horiek emateko beste betekizun batzuk ezarri baititu. Horien betetze-maila arloan eskumena duen Sailak egiaztatu behar du, baina horretarako sail eskuduna ez da Hezkuntza Saila, Enplegu Saila baizik, ezartzen den prozeduraren bidez.
3. Zentro publikoei ez zaie prozedura hori aplikatzen, haien izaera dela eta. Izan ere, Jaurlaritzaren titulartasuneko zentroak izanda, Jaurlaritza bera legeak zehazten dituen betekizunen bermatzaile bihurtzen da. Dena den, Jaurlaritzari ezin zaio gauza bera eskatu titulartasun pribatuko zentroeiei dagokienez. Are gehiago: zentro publikoei dagokienez, horiek erregistratzeko prozedura Hezkuntza Sailak eskatuta abiarazten da, betekizunak betetzen direla dioen ziurtagiria aurkeztearekin batera, baina hori ez da oztopo bat, arloan eskumena duen sail bakarra den aldetik, Enplegu Sailak betetze-maila hori egiaztatu dezan bidezko ikuskapenen bidez, zentroak behin betiko erregistratu baino lehen.

Aurrekoagatik guztiagatik, Euskadiko CCOOek uste du lehenengo xedapen osagarriaren testuari eutsi behar zaiola, Jaurlaritzak bidalitako zirriborroan agertu bezala.

Bilbon, 2013ko maiatzaren 30ean